



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2007-11-21**

VURTEA 1.293.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## 'Otaola auzia'-gatik deklaratzera deitu zuten lizartzarra, libre

**LIZARTZA** Fiskalaren eskariak atzera bota ditu Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak, «egindakoa ez delako larria» 6



L. GOROSTIDI

**INAKI IRAZABALBEITIA** ELEKA-KO KUDEATZAILEA

«Merezitako lekua lortu du euskarak gaur egungo teknologia berrietan»

**EUSKARA** 'Elebila' izena duen euskarazko bilatzaile berria sortu dute Irazabalbeitiak kudeatzen duen Eleka enpresan 7



HITZA

**CARLOS NUÑEZ** MUSIKARIA

«Askok galdu dituztenen oinordeko gara» 3



HITZA

**XABIER ZEBERIO** MUSIKARIA

«Kontzertua oso berezia izango da» 3

**“Natura bezain eraginkorra”**



**PEUGEOT 308 berria**



**TOLOSA MOTOR, S.A.**  
San Esteban auzoa, 14-A  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 65 03 37 Faxe: 943 65 29 38  
tolosa@tolosa.redpeugeot.com



# Udal organoetan parte-hartzea eskatuz, mozioa aurkeztu du EAEk

**Politika** » Dena den, «mozio honek sakonean dagoen arazoa ez duela konpontzen» argi utzi dute ezker abertzalekoek

## ESTI EZEIZA

EAE-ANVk «herritarren borondatea ordezkatzeko asmoz», Udal organo eta batzordeetan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen dute. Honetarako, duela gutxi, Tolosako Udalera idatzi bat zuzendutako, «Tolosari dagozkion erabakiak hartzen diren Udal organoetan bazterketa politikoa ekiditeko asmoa eta parte hartzeko borondate irmoa erakutsiz».

EAE-ANVk, behin eta berriz eskatu du, parte-hartzea legearen arabera gauzatu dadin, LOREG

deritzon legearen 182. artikulua-ren aplikazioa. Beraien ustetan, gaur egungo egoeran «hori baita herritarren borondatea udalbatzaren islatzeko modu bakarra». Hala ere, argi utzi nahi izan dute, duela gutxi aurkeztutako mozio horrek ez duela sakoneko arazoa konpontzen. Izan ere, «Udalean, agintean dauden alderdiek hitzez, Alderdien Legearen aurka daudela esaten badute ere», gero, hau, indartu egiten dutela uste dute ezker abertzalekoek.

Mozio hau, aurreko osoko bilkura baino lehen aurkeztu zuten EAE-ANVkoek. Hala, herenegun go agerraldian salatu zuten, batzorde horretan, Udal osatzen duten zinegotzi eta alkateak gai horren inguruan hitz egin bazuten ere, beraiek ez ziren deituak izan bilkurara. Horrez gain, «mozioa-



Tolosako EAE-ANV-ko ordezkariak herenegun, Udaletxeko pleno aretoan egindako agerraldian. E. EZEIZA

ren inguruko erantzunik oraindik ez dutela jaso» adierazi zuten EAE-ANVko. Dena den, espero dute, hurrengo osoko bilkuran mozioaz hitz egitea.

## Mozioaren puntuak

EAE-ANVk aurkeztutako idatzian ondoko puntuak eskatzen dira. Alde batetik, EAE-ANVren udal hautetsi eta ordezkariak udal batzorde informatibo, Udaleko osoko bilkuretan eta organo instrumentaletan parte hartzeko eskubidea izatea. Herri parte-hartzea bermatuko duten batzordeen

eta bilkuren izaera irekia ziurtatuz. Honekin batera, ordezkarien parte-hartze hori bermatzeko, aurretiaz, bilera egunak, ordutegia... jakinaraztea eskatzen dute.

Bestalde, Udal hautetsi eta ordezkarien parte-hartze iraunkorra bermatzeko, baliabide teknikoak eta udal egiturak ziurtatzea eskatzen dute. Honez gain, beraiek egindako lana gainerako Udal ordezkarietako berdintasun egoera batean aurrera eramatea eskatzen dute.

Azkenik, Tolosako Udaleko osoko bilkuren erabakia publiko

egitea eta hau erabakiak lehenbait lehen gauzatzea, eskatzen diote alkateari, udal funtzionamenduko araudian txertatuz.

## Tolosarren 2.000 bozka

Aurtengo maiatzeko udal hauteskundeetan, Eusko Abertzaleen Ekintza alderdi politikoa legez kanpo utzi zuten Espainiako Auzitegiak. Hala ere, honek 2.000 tolosarren bozka jasozuen hauteskunde horietan. Bozka hauek kontuan hartuz gero, Udalean lau zinegotzi izatea dagozkiola dio EAE-ANV alderdiak.

# «Euskal kultura zabaltzeko erabiltzen zen antzerkia; abertzaletasuna nabaria da»

**IDOIA GEREÑU** | Idazlea

**Kultura** » Labayenen aldizkarian oinarritutako, 'Antzerti 75 urte eta gero' bere lan berria aurkeztu zuen atzo Idoia Gereñuk

## E. EZEIZA

Kalean da Idoia Gereñuren (Ibarr, 1980) lehen argitalpena. *Antzerti 75 urte ondoren* izenburupean, II. Errepublika garaian Antonio Maria Labayenek euskal antzerkiari eskainirik kaleratutako *Antzerti* aldizkariaren faksimil bat da. Liburua, dendetan edo internet bidez eskura daiteke, [antzerti@hotmail.com](mailto:antzerti@hotmail.com) helbide elektronikoa.



ESTI EZEIZA

## Zergatik aukeratu duzu 'Antzerti' aldizkaria, zure libururako?

Kurtsio hasieran, *Antzerti* aldizkariaren inguruko tesina egin nuen. Hala, ikerketaren ondoren, epai-

mahaiko kideek komentatu zitaduten zerbait ezberdina egiteko, aldizkariaren urteurrena ospatzeko asmoz. Horregatik, pentsatu nuen, ia galdua zegoen aldizkari bat zela

eta ongi etorriko zela berreskuratzeko. Jendeak jakiteko, garai hartan ere antzerkia egiten zela, eta honen inguruan hitz egiten zuten hilabetekari bat bazegoela. Gainera Tolosa izan zen kokaleku nagusia, Antonio Maria Labayen baitzen egilea.

## Nolakoa zen garai haietako antzerkia?

Antzerkia normalean, garaieren isla izaten da. Kasu honetan ere hala zen. Bertan, baserriarren giroko kontuak, tabernetakoak, eliza ere asko aipatzen da, eta baita euskara ere. Hizkera argia dute, hitz egiten den moduko hizkera da.

## Euskaraz egiten al ziren?

Bai, aldizkari guztia euskaraz idatzia dago. Obra batzuk itzuliak


daude, eta beste batzuk orijinalak dira. Garrantzitsua izan zen oso Errepublika garai horretan, askatasun sententzia emanen baitzuen, eta euskararen bultzadan lan handia egin zuen. Antzerkia erabili zen propaganda moduan, herri txikietan eta baserri giroan, analfabetoak zirenen artean beste mundu bat erakusteko. Horregatik esan daiteke, antzerkia euskal kultura zabaltzeko erabiltzen zela, eta abertzaletasuna nabaria da.

## Nolakoa zen 'Antzerti'?

Nahiko txikia zen, eta ale bakoitzak obra bat edo bi argitaratzen zituen. Batzuk handiak, besteak txikiagoak. Honez gain, antzerkiaren inguruko albisteak ere agertzen dira.

## Zure liburuan 54 aleez gain ikerketa ere ageri da.

Aleen aurretik, sarrera moduan nire ikerketaren tesina txiki bat egin dut. Ikerketa hori euskaraz nahiz gaztelaniaz egin dut. Nahi nuena zelako, Euskal Herrian ez ezik, kanpoan ere izatea euskal antzerkiaren berri.



**Higiezinen Agentzia**  
Pablo Gorosabel 40  
1. solairua • 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Tel./faxa: 943 65 55 87  
Sakelakoa: 669 366 994

<p><b>Tolosa:</b> Errementari kalean, 62 m2tako planta duen etxebizitza, 5. solairuan. 3 logela, garajea aukeran.</p> <p><b>Tolosa:</b> Berritutako etxebizitza, 2 logela, 50 m2, 50m2-ko garajea.</p> <p><b>Tolosa:</b> Berazubi, berritutako etxebizitza, kanpoaldera, bista ederrak.</p> <p><b>Tolosa:</b> Aldaba auzoa, 3 pisutako adosatu, lursailarekin, 297.000 euro.</p>	<p><b>Tolosa:</b> Errementari kalea, hirugarren solairua, 3 logela, berritua.</p> <p><b>Tolosa:</b> Nafarroa Etorbidea, bigarren solairuan etxebizitza, 90 m2 erabilgarriak.</p> <p><b>Tolosa:</b> Berazubi, 90 m2-ko etxebizitza. Egoera onean eta altzariekin.</p> <p><b>Tolosa:</b> Larramendi, etxebizitza laugarren solairuan, igogailua, egoera ezin hobean, trasteleku eta garajea aukeran.</p>	<p><b>Tolosalde:</b> baserria, 10.000 m2-ko lursailarekin, konpontzeko.</p> <p><b>Tolosa:</b> Belate, garaje itxiak salgai, 25 m2.</p> <p><b>Albiztur:</b> konpontutako baserri zoragarria, 13.000 m2-ko lursailarekin.</p> <p><b>Altzo:</b> 75 m2-ko planta duen bi pisutako borda, 10.000 m2-ko lursaila.</p> <p><b>Alegia:</b> eraiki berriak, 13 etxebizitza, 2 eta 3 logeletakoak, trastelekuarekin, 174.000 euro rotatik gora. Anoeta: etxebizitza harrizko etxetzarreen, konpontzeko, 90 m2.</p> <p><b>Altzo:</b> etxea, konpontzeko, 3 etxebizitza egiteko lizentziarekin, 10.000 m2-ko lursaila.</p> <p><b>Irura:</b> etxebizitza, atikoa, 3 logela, kanpo aldera, oso eguzkitsua, 237.500 euro.</p> <p><b>Anoeta:</b> Harrizko baserrian etxebizitza salgai. Konpontzeko, 90 m2.</p>
--	--	--

'Mundua Tolosan' ekimenaren baitan, etzi kontzertua eskainiko dute Carlos Nuñez eta bere taldeak eta Alos Quartet-ek, Leidor aretoan 21:00etatik aurrera; kontzertu berezi bezala deskribatu dute bi taldeek, izan ere, lehendabiziko aldiz joko dute elkarrekin; 'Cinema do mar' Carlos Nuñezen azken diskoko abestiak izango dira, batik bat, entzungai zuzenekoan.

## «Askok galdu dituzten tradizioen oinordeko gara eta horiek eguneratzen saiatzen gara»

CARLOS NUÑEZ › Musikaria

**Kultura** » Carlos Nuñez eta Xurxo Nuñez, Pancho Alvarez, Begoña Riobo eta Paloma Trigas taldekideak ariko dira etzi taula gainean

INIGO TERRADILLOS

*Cinema do mar* bere azken lana aurkeztuko du etzi, Leidor aretoan, Carlos Nuñez musikari galiziarrek. Munduko musikaririk serioenen eta trebeenen artean jartzzen dute; bere karismak eta espirituak bihurtu dute ospetsu, beraren instrumentuek —gaitak eta txirulak— normalean izaten dituzten mugak nabarmenki gainditzeraino. Alos Quartet laukotearekin egingo duen zuzeneko «berezia» izango dela azaldu du.

**Etzikoa oso kontzertu berezia izango dela diozu.**

Bai. Orkestra desberdinekin askotan eskaini ditut kontzertuak, baina inoiz ez laukoteekin. Hau lehendabiziko aldia da Alos Quartet bezalako talde batekin arituko naizena. Laukoteetan gertatzen dena da oso onak izan behar direla benetan ondo funtzionatzeko, eta Alos



HITZA

Quartet horren adibide da. Instrumentu klasikoak jotzen dituzte, baina estilo modernoa dute. Gainera, azken urteetan jorratzen ari naizen pelikuletako musikaren bidetik doaz. Hau guztia kontuan hartuta, kontzertua oso berezia izango da. Jendea harrituta utziko dugu eskainiko dugunarekin; ziur guztiek oso ondo pasako dutela.

**Zer da eskainiko duzuen?**

*Cinema do mar* izena duen nire azken laneko abestiak osatuko dute kontzertua. Baina izango da gehiago baita ere; azken urteetan, hau da, *Mar dentro* filmaren soinu banda egin nuen urtetik jorratu dudana musika entzuteko aukera izango da. Eta baita, lehenagoko kantak ere.

**Zinemaren munduan zabilta azken urteetan.**

Bai. *Mar dentro* pelikularekin soinu banda egin nuenetik, beste hainbat filmetan hartu dut parte, horien artean dago arrakasta handia izan duen Miyasakiren *Gedosenki* filma. Oso interesgarria izan zen japoniarrekin lan egitea.

**Nola deskribatuko zenuke egiten duzun musika?**

Ez da musika zeltiar konbentzionala. Musika zeltiar unibertsala egiten lortzen ari gara. Munduko musika eta estilo desberdinekin nahastu dugu gure musika. Esaterako, Kepa Junkerarekin lehendabiziko lanetik izan dut elkarlana. Eta euskal musikarekin ez ezik munduko musika ugariarekin sartu dut gaita. Izan ere, libre gara musika egiteko nahi dugunarekin. Beste askok galduak dituzten gauza zaharren oinordekoak gara gu eta horiek egungo garaietara egokitzu saiatzen gara. Europa zaharrraren legatua dela esango nuke *Cinema do mar* azken lana.

**Nola gogoratzen duzu musikaren munduan barneratu zinen unea?**

Duela 10 urte izan zen, eta ordutik geratu gabe aritu naiz, 100-150

kontzertu eskainiz urtean. Erritmoa jaitsi gabe egon naiz, arrisku-tua baita geratzea. Ez dut abandonatu nahi gidatzen nauden izarra. Egia da urtero biran egotea oso gogorra dela, eta horrek disziplina handia eskatzen duela, baina jarraitu beharra dago.

**«Musikaren bidetik hasieratik gidatu nauen izarra ez dut abandonatu nahi»**

**Nolakoak dira euskal jarraitzaileak?**

Une kuriosoa ari naiz bizitzen Euskal Herriarekin. Pixkanaka handituz joan naiz euskaldun zaleekiko harremana. Gainera, bai nire agentea bai eta managerra ere euskaldunak dira. Managerraren kasuan, iparraldekoa da, eta geroz eta gehiago ulertzen dut hantutuzten sentimentuak, euskal izaeraz gehiago ari naiz ikasten.

**Ezagutzen al zenuen Tolosa?**

Ez dut ezagutzen, baina kontzertuaren aurreko egunean han izango naiz. Kontzertua emango duan herriko giroa eta jendea ezagutzea eta sentitzea garrantzitsua iruditzen zait. Sentsazioak sortzen laguntzen dithorrek, inspiratzeko, eta horrela kontzertua transmititzeko bide ematen dit. Izan ere, jende batenzat eman behar duzu kontzertua, eta horretarako jende hori eta leku hori ezagutzea ezinbestekoa da.

## «Carlos Nuñez bezalako artista batekin eta Tolosan jotzea gustura egoteko modukoa da»

XABIER ZEBERIO › Musikaria

**Kultura** » Tolosarrarekin batera, Francisco Herrero, Lorena Nuñez eta Pello Ramirez taldekideak ariko dira Carlos Nuñezekin

INIGO TERRADILLOS

Carlos Nuñez eta bere taldekideekin batera etzi, Leidorren Alos Quartet laukotea ariko da. Lehendabiziko aldia da elkarrekin zuzeneko eskaintzen dutena. Xabier Zeberio (Tolosa, 1978) tolosarrak «oso gustura» daudela kontzertu honen aurrean azaldu du.

**Carlos Nuñez bezalako musikari batekin lan egitean zer sentitzen duzue?**

Oso gusturagaude. Laukote bezala aritu gara Dulce Pontes edota Kepa Junkera bezalako artistekin aritu gara, baina estreinakoz ariko gara Carlos Nuñezekin. Berarekin

batera jotzea, eta gainera, Tolosan, oso gustura egoteko modukoa da.

**Nola prestatu duzue kontzertua?** Carlos Nuñez eta bere taldea etago ariko gara elkarrekin jotzen. Nuñezen azken diskoko, hau da, *Cinema do mar*-eko lanak joko ditugu batik bat. Horretarako duela hilabete inguru partiturak pasa zizkiguten, eta baita grabaketak ere. Gure aldetik lanean aritu gara, eta azken entseguak Tolosan egingo ditugu elkarrekin.

**«Oso kontzertu erakargarria izango da, oso kantu politekin; ikuskizun benetan polita»**

**Nola deskribatuko zenuke eskainiko duzuen ikuskizuna?**

Carlos Nuñez oso ezaguna da, baina ezagutzen ez dutenentzat esan daiteke oso kontzertu erakargarria



Alos Quartet taldea, ezkerrean Xabier Zeberio. HITZA

izango dela, oso kantu politekin. Ikuskizun polita izango da.

**Alos Quartet taldea nola definituko zenuke?**

Ohiko laukote bat gara. Musika klasikoak jorratzen dugu batik bat, baina era berean, esan daiteke taldekide bakoitza musika motta desberdinetatik gatzozela; nire kasuan,

**Iragarki laburrak**

**SALGAI**

■ **Autoa.** 206 GTI. 4 urte. 7.500 euro. Aukera bikaina. 656 4102 80.

**Tolosako Udala**

IRAGARKIA

UDAL PLANGINTZARAKO AHOLKU BATZORDEA

Iragarki honen bitartez Tolosako Elkartearen Udal Erregistroan inskribatuta dauden elkarteak jakinarazten zaie ondorengo egunetan Tolosako Plangintzarako aholku Batzordea osatzeko hautagaitezaren eta gainontzeko baldintzen inguruko informazioa biltzen duen idatzia jasoko dutela. Aipatu elkarteak hautagaia izendatu eta Udalarekin izendapenaren berri emateko 2007ko abenduaren 12a bitarteko epea izango dute. Informazio gehiagorako jar zaitzete harremanetan Udaltxeko Hirigintza Departamentuarekin. Tolosa 2007eko urriaren 20an. Jokin Bildarratz Sorron Alkatea



HITZA

## «Kirol eskaladari etorkizun oso oparoa ikusten diot»

PATXI USOBIAGA » Eskalatzailea

**Villabona** » Berriki Munduko Eskalada Kopa irabazi du Patxi Usobiagak; gaur hitzaldia emango du Aizkardiren Mendi Astean

IMANOL GARCIA

Telefonora itsatsita dago egunotan, bigarren aldiz jarraian Eskaladako Munduko Kopa irabazi ostean Patxi Usobiagak (Eibar, Gipuzkoa, 1980) *Ur sakonetako bakardadea* proiektzioa emango du gaur Aizkardik antolatutako duen Mendi Astearen baitan. Gurea aretoan izango da, 20:00etan.

**Asteburu honetan irabazi berri duzu Munduko Kopa, baina azken probaz zizaitzuna nahi bezala atera.**

Zortzi proba izan dira eta zazpi puntuatzen zuten. Gogoan nuen azkeneko proban ondo egiteko, baina ez zen posible izan. Bat alde batera utzi behar zen eta azkeneko proba utzi nuen alde batera eta Kopa irabazi ahal izan dut.

**Bigarren txapela eta biak jarraian. Ilusio berdina egin dizu bigarrenak?**

Aurreko urtean amets bat bete

nuen. Oso urrutikusten nuen gauza bat bete nuen eta aurten errepikatutako egin dut. Errepikatzea oso zaila izaten da.

**Villabonan emango duzun hitzaldian zer ikusi ahaliko da?**

*Ur sakonetako bakardadea* ikusentzunezkoa ematen ari naiz azkenaldian. Mallorcan grabatutakoa da. Klean eskalatzeko den disziplina bat da, itsasoa ondoan duzula. Oso ikusgarria da. Gero ikuslegoarekin solasaldia izango dugu eta hor nahi dutenaren ingurugaldetu dezakete.

**Eskaladan eta alpinismoan euskaldunen presentzia handia da mundu mailan. Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Nik etorkizuna oso oparoa ikusten dut eskaladan. Azken urteetan indar handia hartzen ari da eskalada. Ikustea besterik ez dago nola betetzen diren jendez rokodromoak, nola herriak rokodromo betetzen ari diren... Horrek egiten duena da kirol eskaladak indarra hartzea eta jendeari kirola hau gerturatzeko. Hori oso ona da. Horrek esan nahi du kirol moduan gora doala eta hori guretzako profesional moduan eta kirol eskaladarentzako ere oso ona da.



## AHTren aurkako ikuspegiak

**ANOETA** » AHTren inguruko herri galdeketa egingo dute Anoetan abenduaren 2an. Horren harira, aste honetan eztabaida prozesua egiten ari dira. Atzo, lehenengo ekitaldia egin zuten, AHTren aurka dauden beraien argudioak emanez. Bertan parte hartu

zuten ELA sindikatuko Ramon Irazuk, AHT Gelditu! Elkarlaneko Mila Amurriok eta AHTren Aurkako Asanbladako Urdaxpal Alberdik. Hurrengo ekitaldia mahai-ingurua izango da, bihar 19:00etatik aurrera udaletxean. I. GARCIA

## Ezgaituei etxeak egokitzeko lanek %50eko udal hobaria jasoko dute

**Zizurkil** » Udalak 2008ko zergak eta tasak onartu ditu; mugikortasunaren baremoan ezgaituak 7 puntu behar ditu gutxienez

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak %50eko udal-hobaria aplikatuko die eraikinetan egiten diren obrei, hauen helburua betiere ezgaitasuna duten pertsonen irribide eta bizigarritasuneko baldintza egokiak ezartzea dena. Aipaturiko neurria Udalbatzak datorren 2008. urterako onarturiko zerga eta tasen barruan eginiko aldatetara jasotzen da.

Hala bada, eraikinean bizi diren ezgaituei baldintza egokiak ber-

matzeko beharrezko azpiegitura sortzea erabakitzen duten zizurkilarrak bi baldintza bete behar dituzte aipaturiko laguntza jaso ahal izateko. Alde batetik, Udalak ezgaitasun kalifikazioa eskatuko die, eta bestetik, aipaturiko obren onuraduna izango denak 7 puntu behar dituzte gutxienez mugikortasunaren baremoan.

Eraikineko obraren aurrekontu osoa hartuko da oinarri gisa hobariaren kuota kalkulatzeko, betiere gauzatzen diren obra guztiak bereziki ezgaituen bizigarritasuna erraztera bideratzen direnean. Alabaina, obra aldatuta orokor bat egitera bideratzen denean, kuota kalkulatzeko orduan, hobaria izateko eskubidea duten partidak barririk konputatuko dira.

**Tasetan zenbait aldatuta**

Laguntza honetaz gain, Zizurkilgo Udalak, osoko bilkuran, 2008ko urtean aplikatuko diren zenbait tasa eta zergen aldatuta ere onartu zuten. Hala, izaera hiritarreko ondasun higiezinaren gaineko zerga egungo %0,1453tik %0,1535era igoko da, eta landa izaerakoak berri %78 izatetik %0,82 izatera igaroko dira.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga eta zerbitzu publikoen presazio eta administrazio jarduerak burutzeagatik dauden tarifak izango dira aldatuko diren beste bi kontzeptuak.

Gainerako zerga-ordenantzak bere horretan geratuko dira eta ez dute aldataririk izango 2007 urtearekiko.

txokoa  
**h**

**Sarrerak**  
deitu eta eskuratu

**Carlos Nuñez**  
+  
**Alos Quartet**

Azaroak 23 ostirala • 21:00etan Tolosako Leidorren deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**

HITZAren harpidedunentzat abantailak

**Hegaldia + egonaldia + futbol partidua**  
ZOZKETA

2 pertsonentzat

- HEGALDIA
- BI GAUERAKO HOTELA
- LIVERPOOL / BOLTON WANDERERS partidurako sarrerak Liverpooleko Anfield estadioan **abenduak 2an**

**Gainera, Xabi eta Mikel Alonso tolosarren kamiseta bana!**

Irabazlearen izena, azaroaren 25ean argitaratuko dugu.





Ikaztegieta larunbateko azokan, besteak beste, animaliak eta garaiko produktuak izango dira. HITZA/N. URBIZU

## Euskal Jaia antolatu dute eta feria izango da gune nagusia

**Ikaztegieta** » Herritarren postu erakargarriez gain, inguruetatik etorritako enak ere izango dira larunbata goizean, plazan

### NEREA URBIZU

Ikaztegieta kultur ekitaldiez gozatzen hasiak dira: lehengo ostegunean hasi ziren erakusketekin, hitzaldiekin eta herri krosarekin. Baina datorren larunbatekoa da agian, apusturik handiena, Euskal Jaia egin behar baitute. Euskaldunon kulturaren hainbat arlo islatuko dituzte: bertsolaritza, janaria, bertako produktuekin osatutako azoka, txalaparta, zantantzarrak, artisautza, dantza... Dena, 11:00-etatik aurrera plaza inguruan.

Helena Larrañaga kultur zinegotziak esan bezala, egiten duten lehen aldia da. Guztira 15 postu inguru, gehi jatekoak eta edatekoak izango dira. Baserritarrez jantzita agertzea eskatu dute, asmoetako bat azoka giro eta kutsu horri kolore gehiago ematea baita.

### Produktuak herritarrenak

Guztira 11:00etan emango dioite hasiera. Postuak irekiko dituzte

orduan, eta txalapartariak girotuko dute hasiera hau, makilak hasitzen hasiz. Ondoren, 12:00ak aldeira, herriko dantzari txikien saioa izango da plazan bertan. Azokak jarraituko du eta ordutik aurrera jatekoekin hasi daiteke jendea, eskaintza zabala baitago: gaztainak, taloak, sagardoak, txokolata, hirugarrea, txorixoa, ogitartekoak...

### Herritarren postuak

Herritarrek taldetxoetan egongo dira antolatuta, jangaiekin, edariekin eta bestelakoekin. Hala ere, hauek dira Ikaztegieta aurki daitzekkeen postuak: bertako enak, barazkiak, ukenduena, produktu iberikoak, mondejuak, erroskilak, produktu ekologikoak, orujoa eta likoreak dastatzeko aukera, babarrunak, intxaurrak, tapizak, altzairu txikiak, bonsaien erakusketak, egur taila... DBH 4. mailako ikasleek ere jateko postu bat jarriko dute.

Horrez gain, animaliak ere izango dira: untxiak, oiloak, usoak, antzarak, fairsaiak, behorrak, astoren bat... «Oraindik ere zehazteko gauza batzuk badaude, baina hauek ziur egongo dira».

Kanpotik etorritakoak, berriz, hauek dira: ezti-egilea, larrua lantzen duena (abarkak egiten ariko

### » HAINBAT DATU

- **Lekua.** Ikaztegieta plaza.
- **Ordua.** 11:00etatik aurrera.
- **Postuak.** Barazkiak, mondejuak, bonsaien erakusketak, altzairuak...
- **Txartela.** 6 euro, nahi adina jateko eta edateko.
- **Oharra.** Baserritarrez jantzita azaldu, ahal dela.

da), artisautza organikoak (bitxiak, belarritakoak...), Errezilgo emakumeek marmeladak eta konpotak eta ogi biologikoak.

### Jaterakoan, azokan murgilduta

Ez dute Ikaztegieta bazkaria eserita egingo; «Giroa azokan egotea nahi dugu, eta ez eserita. Taloak eta ogitartekoak izango dira jateko, eta zutik, musikarekin-eta egingo dugu». Zantantzarrak ere ariko dira herrian, eta bazkariaren ondoren trikitilariak eta bertsozale gazte pare bat: «Hauek festetan etorri ziren eta giro oso polita jarri zuten».

6 euroko txartelak izango dira salgai, eta hauen bitartez nahi adina jana eta edana eskura daiteke. Haurrentzako txartelak euro bat balio du. Azoka 17:00ak arte edo, egongo da zabalik.

## Nilo ibaiaren inguruko irudiak eta bideoak Josu Jimenezen eskutik

**Kultura** » Gaur Loatzoko musika eskolako kalejira izango da 19:00etan, eta haurrentzako antzerkia, berriz, bihar arratsaldean

jendearekin izan genuen harremana eta gizarte lana ere». Irudiak eta bideoak erabiliko dituzte, jendeak ikus dezan nolako den paisaia eta bizimodua, hein handi batean.

Alegiko Udalak diru laguntza bat emango die Ugandara bidaltzeko, *Totu* alegiarraren eta Gabilondo donostiarraren hitzaldiaren truke.

### ERREDAKZIOA

Gaur Alegian, Azaro Kulturaren baitan 19:00etan herrian zehar Loatzoko musika eskolako ikasleak kalejira ibiliko dira, musikoen eguna hurrengo egunean dela kontuan izanik, eta honen omenez.

Ondoren, 20:00etan Kultur Etxean *Nilokour lasterretan barrena* hitzaldia izango da *Totu* (Josu Jimenez) eta Xabin Gabilondo dentistaren eskutik. *Totuk* esan bezala, «ez dugu bakarrik Nilo ibaieko lehen 40 kilometroko piraguan azalduko: baita han bertako

### Eta bihar antzerkia

*Bakartxoren zapatilak* antzerkia bihar izango da Kultur Etxean, 17:30ean. Kutzaksustatu eta finantzaturiko jarduerak hau 3 eta 10 urte bitartekoentzat da aproposa. Ordu beteko saioa da biharkoa.

Antzerki honetan honako gaiak jorratzen dituzte, besteak beste: lana, etxeko arteko harremanak, zabortegia, birziklatzea...

## Z Zurea da hitza



## Kiki eta Kokoren saio jendetsua

**ALTZO** » Joan den ostiralean Lizarbeko gelan Kiki eta Koko pailazoak izan ziren eta oso jendetsua izan zen. Galtzaundi euskara taldeak antolatutakoa da. Bertan, *Sustrai biziak* saioa eskaini zuten. ALTZOKOUDALA

G

Azaroak 24, *Jatubata*  
**OIARTZUN, Elorsoro Karoldegia**  
18:00

Amaitia Agirre	Iker Zubeldia
Irigo Manziadur	Xabier Sukia
Jon Maia	Arkatz Diartzabal

www.guntzia.com

hitza



Datorren ostegunean, hilaren 22an,


### GARI URANGA

Realeko jokalariekin elkarrizketa digitala.

HITZAren erredakzioan izango dugu zuen galderak erantzuteko.

Bidali aurrez zuen galderak [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) helbidera. Egunean bertan ere zuzenean galderak bidali ahalko dituzte.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)





Regina Otaola eta PPrez zinegotziak Lizartzako udaletxearen balkoian, Otaola ustez mehatxatua izan zenean. A. IMAZ

## Espainiako Auzitegi Nazionalean deklaratu ondoren lizartzarra libre

**Politika** » Fiskalaren eskariak atzera bota ditu Espainiako Auzitegi Nazionaleko Santiago Pedraz epaileak

ASIER IMAZ

Santiago Pedraz Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak baldintzarik gabe libre utzi zuen atzo, Madrilen, Otaola Auziategatik deklaratzera deitu zuen P. O. Z. Lizartzako bizilaguna.

### Fiskalaren eskaria atzera

Jesus Alonso fiskalak lizartzarra-aren aurkako neurriak eskatu zituen, Regina Otaola herriko alkateari ustez «herio mehatxual» egi-teagatik hau Espainiako bandera udaletxeko balkoian zintzilika-

tzen ari zen uanean. Fiskalak P.O.Z. «astero epaitegira joateko eskarera» egin zuen, baita «Espainiatik irtetea galaraztea» ere. Pedrazek ordea, ez zituen aintzat hartu eskari hauek, «egindakoa ez delako larrira eta ihes egiteko arriskurik ez dagoelako».

### Tolosatik Madrilera

Tolosako epaitegiak kasua Espainiako Auzitegi Nazionalean eramatea erabaki zuen pasa den irailaren 14an, ustezko mehatxuek «indarkeria kutsua» zutelako, eta Lizartzako bizilaguna atzo bertan izan zen deklaratzeko Espainiako hiriburuan.

Regina Otaolak ere atzo deklaratu zuen Auzitegi Nazionalean. Eibartarraren esanetan, «lizartzako bizilagunak lehen ere iraindu» zuela azaldu zuen, «eta gertaeren

egunean, hil egingo nintzela esan zidan». Honetaz gain, Otaolak «mehatxua argi eta garbi» entzun zuela azaldu zuen, baita ere nork esan zion, izan ere, «pertsone hori altua da eta besteen ondoan nabarmendu egiten da».

### «Faxismoa Lizartzan»

EAE-ANV joan den maiatzeko hauteskundeetan baliogabetu egin zuten eta EAJk zerrendarik aurkeztu ez zuenez, PPrez ki-dea da gaur egun Lizartzako alkatea, 27 botorekin. Batasunaren ustez, «Alderdien Legearen emaitza dira» bai PPK Lizartzan egin duen «sarraldia» eta baita «salaketa Auzitegi Nazionalean eramatea» ere. «Faxismoa iritsi da Lizartzara, eta «Faxismoa ari da momentu honetan herri borondatearen aurka agintzen».

## Lagunekin beti ondo



### » Zilarrezko Jaurtiketa

Jon Altuna

Lesioa uste baino gehiago luzatu da eta horregatik beste aste bat ezin jokaturik egon naiz. Ondorioz lagunekin egoteko beta izan dut eta egia esan ederki aprobetxatu dugu, larunbat arratsalde elkarrekin pasa, afari legea egin eta noski, parranda txiki bat egiteko aprobetxatu. Urtean zehar gutxi dira asteburua libre izaten ditugun momentuak eta ditugun gutxi horiek ahal den hoberen aprobetxatzen saiatzen gara. Ni ez naiz kezu daramadan bizimoduaz, gustatzen zaidana egiten irabazten baitut dirua, baina egia da askotan oso mugatua geratzen dela gure aisialdi garaia; izan ere, denek jai dutenean guri lan egitea tokatzen zaigu, asteburuetan hain zuzen ere. Lagunekin egotea baino gauza hobirik ez dago; beraiek beti daude momentu onetan zein txarretan,

beti berdín jokatzeko dute zurekin, horregatik dira lagunak eta bizitza honetan beti zure ondoan egongo diren bakarrak dira, lagunak eta familia noski!

Lesioa lesio, Castellonerako bidaia galtzea suertatu zen. Oraingoan taldea gure autobus «maite»-ra bueltatzeko zen. Ikusten ditut taldekideak kartetan jolastan batzuk, besteak pelikula ikusten, irakurtzen besteren bat... Zortzi orduko bidaia izan zuten eta horrek ordu hil asko dakartza eta nolabait pasa beharra dago. Partida ikusteko aukerarik ez nuen izan, baina taldekideak gustura ziren egindako partidarekin. Penalti bat ere huts egin genuen, baina alde zurekin berdinketa ontzat emango genuenez, orain ezingo gara hasi kekatzen. Hori bai, berdinketa hau ona egiteko etxeko hurrengo partidua irabazi beharra dago eta horretarako egingo dugu lan burubelarri aste honetan.

Amaitzeko pilota inguruan ez dut gauza askorik aipatuko, konturatu baina ez gertu ulertzen dudala. Zerbait ulertzen nuela uste nuen, baina aste honetan pentsamendu horiek bertan behera joan dira. Ea behintzat Abelek poz txiki bat ematen digun abenduaren 2an!



## Herriarrek, Agirre eta Gabilondo

**GAZTELU** » Iragan larunbatean bertso afaria egin zuten Gazteluko herri elkartean. Antolatzaileak «oso gustura» agertu dira jendearen erantzunarekin. Horregatik, «gerturatu ziren gutzietik eskerrak emateaz gain, ekintza gehiago antolatzeko gogoz daudela» azaldu zuten. Izan ere, «ondo pasatu zuten» herriarrek, Amaia Agirre eta Nahikari Gabilondorekin. HITZA

## Hilberriak

### LUZIA LEUNDA IRAOLA

Atzo hil zen, 74 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Izar berri bat piztutera joan zara Euskal Herriko zeru gainera.



**GOIATZ**  
2007ko azaroaren 21ean

Zure alaba Maria Jesusen lagun, bazkide eta langileak

### CARMEN ZUBIZARRETA IRIZAR

Andrea

(Santos Jauregi-ren alarguna)  
Atzo hil zen, 79 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Seme-alabak: Patxi eta Lauri Bastarrica, Juan Manuel eta Izaskun Lasa; bilobak: Mikel eta Olatz Urbieto, Itziar eta Felix Maritxalar, Aratz eta Ane; birloba: Maddi; anai-arrebak: Joxe (?) eta Juana Irazusta (?), Emilio (?) eta Axun Zorita, Juan, Antonio (?) eta Begoña Irizar, Bixente eta Ana M<sup>o</sup> Durronsoro, ezkon anai-arrebak: Martin (?) eta Ana M<sup>o</sup> Otzgi (?), Viktor eta M<sup>o</sup> Dolores Torres; ilobak, lehengusak eta gainerako ahizpak: Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitezte, BIHAR OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, CORPUS CHRISTI parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Martin J. Iraola Etorbidea, 4 - 2. esk. OHARRA: Gorputz belia Tolosako Vascogoda Tanatorioan egongo da. GAIUR: ASTEAZKENA, arratsaldeko 16:30ak arte. Lur ematea etxeokoen artean egingo da Ordizko panteoi familiarra.



**TOLOSAN,**  
2007ko azaroaren 21ean



KULTURA SAILAK DIRUZ ERATZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# e|lebila

EUSKARAZKO BILATZAILEA

Pasa den urritik aurrera euskarazko xerkaketak egitea posible bilakatu da; Koldo Mitxelena kulturagunean bildutako komunikabideek, harrera paregabea egin ziotenen 'Elebila'ri.

## Euskarazko bilatzailea

LEIRE GOROSTIDI

Urriaren 17az geroztik guztion eskura dago *Elebila* izeneko euskarazko lehen bilatzailea. Edonolako xerkaketak egiteko, nahikoa izango da [www.elebila.eu](http://www.elebila.eu) sakatzea. Argi dago gure hizkuntzak ez duela teknologia berrien trenetik jaisteko inolako asmorik.

Elhuyhar fundazioaren eta Eleka Ingenieritza Linguistikoaren eskutik gauzaturiko proiektua izan da *Elebila*. Sarean zegoen hutsunea eta erabiltzaileen beharrezan asetzeko asmoz garatua alegia. Inaki Irazabalbeitia Eleka-ko kudeatzailearen ustez, *Google*, *Yahoo*, *Alexa*... bezalako bilatzaileek ez dakite euskarazko bilaketarik behar den moduan egiten, ez daudelako horretarako prestatuak.

«Enpresa handiek ez dute inongo interesik euskara bezalako hizkuntza minoritario batean inbertitzeko». Honen ondorioz, energia, asto, anorexia... bezalako eleen bilaketak, ingelera, gaztelera edota frantsesa bezalako hizkuntza maioritarioetan agertzen dira, euskara, bigarren edo hirugarren maila batetara baztertuaz. *Elebila*-ren eskutik euskarazko ekarpenak lehenestea lortu nahi dute.

Egitasmo honen bidez euskarazko edukiek interneten duten

**Euskaldunen bilatzaile estandarra izateko aukera guztiak eskaintzen ditu 'Elebila'-k**

**Euskarazko bilatzaile berriak, egun batean, hogeita hamar mila bisita izan zituen**

agerrera indartzea lortu dute. Irazabalbeitiak azaldu bezala, «Euskal Herriko zein mundu guztiko euskarazko webguneak bilatzen ditu *Elebilak*». Jatorria ez da arazo bilaketa burutzeko garaian.

Erreminta berriztatzaile honek abantaila desberdintzaile ugari agertzen ditu, besteak beste, hitz

batek har ditzakeen forma posibleen bilaketa ahalbidetzen du; energia elearen energiako edo energiaren aldaerak lortzeko aukera luzatzen du. Forma estandarrez gain, modu ez estandarra ere eskaintzen du: pilotari eta pelotari esate baterako.

Elekako kudeatzaileak azpimarratu bezala, garrantzitsua da ikastela eta eskoletako umeek honen berri izatea. «Bukatu dira buruz eginiko euskarapenak eta terminoen asmakuntzak». Garrantzitsua da irakasleak honen erabilera azaltzea, aukera berri honi ahalik eta etekin gehien ateratzeko.

Webgunean agertzen den *Eleberri Game* jokoa modu erraz eta dibertigarria izan daiteke bilatzaileak eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko.

*Elebila*, euskaldunon bilatzaile estandarra izatea espero du Irazabalbeitiak, bai euskara eta baita bestelako hizkuntzetako bilaketak egiteko ere. «Oraindik denbora itxaron beharko da hori lortu bitartean, mementuko helburua euskaldungoari zerbitzu on bateskaintzera izango da».

**Bisitaldi kopurua**

Eguneko, hamar mila bisitalditik gora jasotzen ditu *Elebilak*. Hala ere, lehen egunetan lortutako hogeita mila berdintzea lortu nahi da. «Denbora behar da jendea ohitu dadin».

Egin beharreko hobekuntzetan pentsatzen hasia da Elekako kudeatzailea. *Elebilak* mementuz, euskara batuan onetsitako formak bakarrik bilatzen ditu eta «aldaera dialektalak bigarren bertsiorako utzi beharko dira». Frantses eta gaztelania hutseko bilaketak eskaintzea ere interesgarria iruditzen zaio Irazabalbeitiari. Hala ere buruera hauek baino lehenago iritsiko da kontsultak mobiletik egiteko aukera, *Elebila.com* domina alegia.

«Euskarak oso leku polita du gaur egungo teknologia berrietan». Hitzun kopuru handiagoa duten beste hainbat hizkuntzek,



Inaki Irazabalbeitia, Eleka Ingenieritza Linguistikoki kudeatzailea. L.GOROSTIDI

hots, hirurehun mila hitzun dituen Indiako Indis hizkuntzak hamar mila sarrearik behera ditu Interneten, euskarak dituen baino hamar mila gutxiago. «Datu baikor hauek mantentzen eta hobetzen

saiatu behar gara, teknologia kontuetan atzera geratzea oso erraza baita».

Euskarak interneten dituen eskasiak azaleratzen lagunduko du *Elebilak*. Eduki asko dago in-

formazioaren ikuspegitik baina gabeziak oraindik ere nabarmenak dira. Hobetzeko asko geratzen den arren, bilatzaile berri hau pauso garrantzitsua izan da euskararen eguneroko erabiltzearen.

## «Euskarak, merezitako lekua lortu du teknologia berrietan»

INAKI IRAZABALBEITIA > Elekako kudeatzailea

**Interneteko bilatzailea »**

Euskarazko xerkaketaz gain, beste hizkuntzetako bilaketak egiteko aukera eskaintzen du 'Elebila'k

L.GOROSTIDI

Alkantzabiz den Inaki Irazabalbeitia (Donostia, 1957) zientzia kimikoan doktorea da. Bere bizitza profesionalaren zati handi bat Elhuyhar fundazioan igaro du Irazabalbeitiak hainbat urtez, bertako zuzendari nagusi izanik. 2006tik aurrera Eleka ingenieritza linguistikoko enpresa kudeatzen du, hizkuntza tratatzeko erraminta informatikoak garatuz eta eleaniztasuna kudeatzeko erramintak landuz. Lan honen emaitzetako bat aurkeztu berri den euskarazko bilatzaile berria izan da, *Elebila*, hain zuzen ere.

**Zein hobekuntza ekarriko ditu aukera berri honek?**

Euskarazko emaitza gutxi aurkitzen diren hizkuntzetan oinarritutako

tean, informazio asko eta asko, buruz itzuli behar izan dugu euskarara. Hemendik aurrera nahi izanez gero, bukatu da informazioa beste hizkuntza batean lortzea.

**Zenbat denboraz aritu zarete proiektu hau gauzatu artean?**

Egitasmoa bi zatitan banatu da. Alde batetik Elhuyhar fundazioko Ikerketa eta Garapen sailak urtebetez luzaturiko bilaketa sakona legoke. Behin hau amaituta, Eleka arduratu da ikerketako emaitzaz, zerbitzu bilakatzeaz eta baita honen itxuraz eta marketing kanpaina egiteaz ere. Elhuyharrek 2006. urte hasieran ekin zion proiektuari eta emaitza, 2007ko urriaren 17an aurkeztu zen.

**Nork garatu, merkaturatu eta finantzatu du proiektua?**

Oinarrituko teknologia, hau da garapena, Elhuyharrek burutu du eta merkaturatzea eta marketina aldiz Elekak. Finantzaio arloan iturri desberdinek hartu dute parte; alde batetik, Elhuyharrek buruturiko ikerketek jasotako diru laguntzak

egon dira. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak produktuaren %35eko gastua hartu du bere gain. Gainontzekoa aldiz, Elekak alde aurretik egindako inbertsioetik etorri da hau geroago berreskuratzeko.

**Euskarazko edo indartze-ko modua teknologiari loturik doa.**

Neurri batean bai. Informazio eta komunikazio teknologiaren trena hartzen ez duten hizkuntzek etorkizun beltza izango dute. Euskara bezalako hizkuntza gutxiengotarrantz teknologia berriak ez dira mehatxu, aukera izugarria baizik. Gure hizkuntza indartzeko eta honen erabilera areagotzeko tresna litzateke teknologia.

**Beste bilatzaileen pare al dago 'Elebila'?**

Jatorrizko kalitatean legoke desberdintasun bakarra. Hala ere, oso subjektiboa da bilatzaile hoberena izendatzea. Aipatu beharrekoa da *Google*, *Yahoo*, *Alexa*... bezalako bilatzaileek topatutako emaitzetan lan egiten duela *Elebilak*. Ez da interneteko karramarro bat.

